

# 4/26

## *irizpena*

Nazioarteko Adopziorako Batzorde-  
Teknikoa eta nazioarteko adopziorako  
bitartekaritza-erakundeen akreditazioari  
eta funtzionamenduari

dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2026ko ekainaren 11



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## Irizpena 4/26

---



## I.- AURREKARIAK

---

2026ko maiatzaren 22an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, *“Nazioarteko Adopziorako Batzorde-Teknikoa eta nazioarteko adopziorako bitartekaritza-erakundeen akreditazioari eta funtzionamenduari buruzko dekretu-proiektuari”* buruzko txostena eskatu zuten, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultagai dugun arauaren xedea da, 1. artikuluan azaltzen denez, EAEn egoitza duten eta beste herrialde batzuetatik datozen adingabeen adopzio-prozesuetan bitartekaritza-lanak egiten dituzten nazioarteko adopziorako bitartekaritza-erakunde egiaztatuen akreditazio-betekizunak, funtzionamendu-araubidea eta administrazio-kontrolako prozedurak ezartzea, nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoko ordenamenduan gaiari buruz ezarritakoaren arabera, eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren eta Haurren Babesari buruzko 1993ko maiatzaren 29ko Hagako Hitzarmenaren printzipio inspiratzaileak errespetatuz. Era berean, Nazioarteko Adopziorako Batzorde Teknikoaren osaera, betebeharrak eta funtzionamendu-araubidea garatu behar dira, Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legearen 270. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Berehala bidali zitzaion dokumentuaren kopia Batzordeko Oso Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia emateko eta horiek guztiak lan-batzordean landu daitezzen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera.

2026ko ekainaren 5ean Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen, Batzordearen Osoko Bilkuran berresteko, eta han aho batez onartzen da.

## II.- EDUKIA

---

*“Nazioarteko Adopziorako Batzorde-Teknikoa eta nazioarteko adopziorako bitartekaritza-erakundeen akreditazioari eta funtzionamenduari buruzko dekretu-proiektuak”* honako hauek jasotzen ditu: zioen azalpena, zortzi kapitulutan banatutako 33 artikulua (Xedapen Orokorrak; Jardun Eremua eta Araubide Juridikoa; Egiaztapena; Funtzionamendu Araubidea; Nazioarteko Adopzioko Bitartekaritza-erakundeen Funtzioak eta Jarduerak; Ekonomia eta Finantza Araubidea; eta Kontrola eta Ikusapena eta Nazioarteko Adopziorako Batzorde Teknikoa), eta, gainera, Xedapen Gehigarri bat, Iragankor bat, Xedapen Indargabetzaile bat, hiru Azken Xedapen eta lau eranskin.

Zioen azalpenak dioenez, Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileen akreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituen abenduaren 27ko 277/2011 Dekretuak zenbait hobekuntza sartu zituen, indarrean jarraitzen dutenak. Hobekuntza horien guztien artean, erakundeek egiaztapena lortzeko bete behar dituzten baldintzak ezartzea, herrialde baterako akreditazioaren indarraldia eta ordainketak hiru unetan zatitzeko aukera aurkitzen dira. Gainera, erakundeak adopzioaren izapidetzearen kostuei publizitatea emateko betebeharra gehitu zuen, eta adierazi zuen alderdiek, familia adoptatzaileak eta Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileak arauan jasotzen zen bitartekaritza-kontratuaren eredura egokitu beharko dutela.

Gaur egun, Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legea (aurrerantzean, HNL) onartzeak dekretua haren ildora egokitze beharra eragin du, zehazki bigarren atalera («Nazioarteko adopzioa»), hain zuzen ere, arau-testu horren 268. artikulua eta hurrengoak barne hartzen duena.

Bereziki, HNLren 270. artikulura egokitu behar da, artikulua horrek Nazioarteko Adopziorako Batzorde Teknikoaren osaera, funtzioak eta funtzionamendua arautzen baititu, bai eta 274.7 artikulura ere, nazioarteko adopzioaren arloko bitartekaritza-erakundeen egiaztapena arautzen baitu.

Gainera, nazioarteko adopzioaren arloko araudia egokitzeko beharra ikusi da, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketaren esparruan. Esparru hori Konstituzio Auzitegiaren 2021eko otsailaren 18ko 36/2021 Epaian mugatu da, 4088-219 eskumen-gatazka positiboari buruzkoa.

Epaian ezartzen diren irizpideen arabera, eta berrikuntza garrantzitsu gisa, Eusko Jaurlaritzak nazioarteko adopzioaren arloan aldebiko akordioak sinatzeko legitimazioa duen kasuak eta akordio horiek izan dezaketen irismena mugatzen dira. Era berean, nazioarteko adopzioaren arloko bitartekaritza-jarduera eta nazioarteko adopzioko bitartekaritza-erakundeak definitzen dira. Jarraian, gutxieneko esparru juridikoa ezartzen da, zeinak gidatu behar baititu bai aipatutako erakundeen akreditazioa, bai akreditazioa etetea edo kentzea, bai akreditazioaren zuzeneko ondorio diren kontrol, ikuskapen- eta jarraipen-eginkizunak betetzea.

Horrekin guztiarekin, xedapen orokor berri bat egin behar da, nazioarteko adopzioaren erregulazioa harmonizatuko duena eta, gainera, Nazioarteko Adopziorako Bitartekaritza-erakundeen eta Nazioarteko Adopziorako Batzorde Teknikoaren akreditazioaren eta funtzionamenduaren indarreko erregulazioa eguneratu eta osatuko duena.

### III.- GOGOETA OROKORRAK

---

*“Nazioarteko Adopziorako Batzorde-Teknikoa eta nazioarteko adopziorako bitartekaritza-erakundeen akreditazioari eta funtzionamenduari buruzko dekretu-proiektua”* aurkeztu zaigu irizpena emateko. Dekretu-proiektu honek nazioarteko adopziorako egiaztatutako bitartekaritza-erakundeen akreditazio-baldintzak, funtzionamendu-araubidea eta administrazio-kontrolleko prozedurak ezartzen ditu, erakunde horiek egoitza EAEn badute eta beste herrialde batzuetatik datozen adingabeen adopzio-prozesuetan bitartekaritza-lanak egiten badituzte, nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoko ordenamenduan gaiari buruz ezarritakoaren arabera eta haurren babesari buruzko 1993ko maiatzaren 29ko Hagako Hitzarmenaren Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipio inspiratzaileak betez.

Era berean, Nazioarteko Adopziorako Batzorde-Teknikoaren osaera, betebeharrak eta funtzionamendu-araubidea garatzen ditu, Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legean ezarritakoarekin bat.

Ekimen hau aurrerapausoa da indarrean dagoen araudia Estatuko araudi berrira eta haurren babes integralaren printzipioetara eguneratzeko eta egokitzeko, eta, beraz, **era positiboan baloratzen dugu**.

Hala ere, nazioarteko adopzioak garrantzi berezia duenez gizartean, zuzenbidean eta giza arloan, beharrezkotzat jotzen dugu **gardentasunarekin, kontrol publikoarekin, parte-hartze sozialarekin** eta adingabeei eta familia adoptatzaileei **laguntza espezializatua ematearekin lotutako alderdi jakin batzuk indartzea**. Horregatik, jarraian, Dekretuaren artikuluei buruzko gogoeta espezifiko batzuk formulatzen dira.

## IV.- GOGOETA ESPEZIFIKOAK

---

### 7. artikulua.- Akreditaziorako baldintzak.

Artikulu honen **1.e) eta 1.g) atalek** honako hau eskatzen diete nazioarteko adopzioko bitartekaritzarako akreditazioa lortu nahi duten erakundeei:

*“1.e) Euskal Autonomia Erkidegoan, integritate moralarengatik, prestakuntzagatik eta nazioarteko adopzioaren arloan duten esperientziagatik kualifikatutako pertsonak ordezkatura, zuzenduta eta administratuta egotea...*

*1.g) Diziplina anitzeko lantalde bat izatea -Euskal Autonomia Erkidegoan kokatua-; lan talde hori osatu behar dute, gutxienez, zuzenbidean lizentziadun batek, psikologian lizentziadun batek eta gizarte-lanean diplomatutako beste batek. Lantaldeko kideek trebeak izan behar dute beraien lanbideetan, eta esperientzia izan behar dute haur eta familiekiko ekintza sozialean, baita nazioarteko adopzioari buruzko gaietan ere.”*

Lehenik eta behin, adierazi nahi dugu gaur egun, aipatutako **unibertsitate-titulazioei** "Graduak" esaten zaiela, eta, beraz, zalantza dugu ez ote litzatekeen zuzenagoa izango "zuzenbidean, psikologian eta gizarte-lanean graduatutako pertsona bati" buruz hitz egitea.

Bigarrenik, egiaztatu beharreko **esperientziari** dagokionez, beharrezkotzat jotzen dugu zehaztea eskatutako esperientziak zenbat denborakoa izan behar duen.

### 21. artikulua.- Adopzioa egin aurreko jarduerak.

Artikulu horren **2. atalak** xedatzen duenez, adopzioa eratu aurretik, Nazioarteko Adopziorako Bitartekaritza Erakundearen eginkizunen artean honako hau dago: *“Nazioarteko adopziorako beren burua eskaintzen duten pertsonen aholkularitza, prestakuntza eta laguntza ematea adopzioaren esanahiari, xedeari eta inplikazioei buruz, genero-ikuspegia zeharka txertatuz, eta, bereziki, kultura-alderdi garrantzitsuei dagokienez, betiere jatorrizko herrialdeen berezitasunak kontuan hartuko dituen ikuspegi intersektionalean oinarrituta”.*

Gure ustez familiaren prestakuntza funtsezkoa da bazterketa-prozesuak saihesteko eta adoptatutako adingabeek arraza-bereizkeria, nortasun-gatazkak eta kultura-erreferenteen galera jasan ahal izateko. Alde horretatik, atal honetan letra lodiz egindako gehikuntza proposatzen dugu:

*“2.- Nazioarteko adopziorako beren burua eskaintzen duten pertsonen aholkularitza, prestakuntza eta laguntza ematea adopzioaren esanahiari, xedeari eta inplikazioei buruz, genero-ikuspegia zeharka txertatuz, eta, bereziki, kultura-alderdi garrantzitsuei dagokienez, betiere jatorrizko herrialdeen berezitasunak kontuan hartuko dituen ikuspegi intersektionalean oinarrituta, **kulturartekotasunean, etnia- eta arraza-identitatean, arrazakeriaren prebentzioan eta jatorrizko kultura-loturei eustean ardazten direnak.**”*

### 23. artikulua.- Geroko funtzioak eta jarduerak.

Artikulu horren **6. atalak** zehazten duenez, jatorrizko herrialdean izapidetzea amaitu ondoren, adingabea iristen denean Nazioarteko Adopziorako Bitartekaritza Erakundeak *“adopzio osteko jarraipen-txostenak egingo ditu, jatorrizko herrialdeak hala eskatzen duenean eta hark ezartzen duen aldizkakotasunarekin.”*

Batzorde honen iritziz komenigarria litzateke adopzioaren ondorengo lehen bi urteetan jarraipen-txosten horiek beti egitea, ez bakarrik jatorrizko herrialdeak hala eskatzen badu.

### 32. artikulua.- Kontrola, ikuskapena eta jarraipena.

Lehenengo eta behin, kontrol-sistema indartzea proposatzen da, gardentasuna hobetuz, artikulua honen **2. atalean** letra lodiz adierazitako testua gehituta:

*"2. Kontrol-, ikuskapen- eta jarraipen-funtzioak betetzean, Eusko Jaurlaritzak nazioarteko adopzio-prozedurak izapidetzean detektatzen diren gorabeheren erregistroa egingo du, bai eta nazioarteko adopzioarako beren burua eskaini duten pertsonak edo familiek beren espedienteak izapidetzeari dagokionez aurkezten dituzten kexen eta erreklamazioen erregistroa ere, **kalitate-adierazleak, izapidetzeko batez besteko denborak eta ikuskapen-jarduketan emaitzak barne.**"*

Bigarrenik, artikulua horren **3. atalak** ezartzen duenez, "Erregelamendu bidez qaratuko dira akreditazioen eta gorabehera, kexa eta erreklamazioen erregistroen funtzionamendu-araubidea eta edukia."

Batzorde honek uste du **epe bat** ezarri behar dela aipatutako erregelamendu-garapenerako, idazketa orokorregia eta zehaztugabea baita.

### 33. artikulua.- Nazioarteko Adopzioarako Batzorde Teknikoa.

Batzorde horren osaera definitzen duen **4. atalean** letra lodiz adierazitako eranskin hau proposatzen da:

*"4.- Nazioarteko Adopzioarako Batzorde Teknikoa honako kide hauek osatuko dute:*

*a) Eusko Jaurlaritzaren bi ordezkari. Nazioarteko Adopzioarako Bitartekaritza-erakundeak egiaztatze, kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumena duen zuzendariak izendatuko ditu. Eusko Jaurlaritzako ordezkarietako bat batzordeburua izango da, eta bestea, idazkaria.*

*b) Hiru lurralde historikoetako ordezkari bana. Foru-aldundi bakoitzean gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailak izendatuko ditu.*

*c) Batzorde Teknikoak, hitzarekin baina botorik gabe familia adoptatzaileen elkarten, haurren babesean espezializatutako gizarte-erakundeen, nazioarteko adopzioan adituak diren pertsonen eta haurren trauma eta kultura-aniztasunean espezializatutako profesionalen ordezkariak sartu ahal izango ditu."*

Justifikazioa gizarte zibilari ahotsa ematea litzateke, beste ikuspuntu batzuk eskaintzen dituelako eta erabakien legitimitate soziala indartzen duelako.

Beste alde batetik, atal horrek berak honako hau adierazten du: "Nolanahi ere, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua lortzen dela zainduko da."

Berdintasun eraginkorrak mekanismo objektibo eta egiaztagarriak behar dituela uste dugu, eta, ildo horretatik, esaldi horren ordezkari honako hau jartzea proposatzen dugu:

*"Batzorde -Teknikoaren osaerak emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatuaren printzipioa errespetatuko du, Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen 10. artikulua araberako, sexu bakoitzaren gutxienez % 40ko presentzia bermatuz".*

-----

**Hizkuntza inklusiboa: 18. artikulua.- Langileak eta gobernu- eta ordezkartza-organoetako kideak.**

Gure iritziz **4.b) atalean**, egokiagoa izango litzateke "*alderdi interesdunen batekin*" aipatzea, jasotzen den "*interesdunen batekin*" baino.

## **V.- ONDORIOA**

---

CES, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz egokia da "*Nazioarteko Adopzioarako Batzorde-Teknikoa eta nazioarteko adopzioarako bitartekartza-erakundeak akreditazioari eta funtzionamenduari buruzko dekretu-proiektua*" izapidetzea, kontsulta-organo honek testua aldatzeko egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2026eko ekainaren 11n

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria